

# GIZARTE PSIKOLOGIA

## 1-SOZIALA eta PSIKIKOAREN BEREIZKETA:

### 1. SOZIALA: Zer da? Zertarako erabiltzen dugu?

SOZIALAri buruz hitz egiten dugunean gizartearen eta orokortasunean, jendarteari buruz ari gara. Soziala "hainbat organismoren loturaz" sortu eta izaten dena da. Soziala den guztia ez da banakakoa, hau da, soziala, banakoen arteko harremana eta elkarrekintza da, elkarrena eta elkarren artean egikaritzen duguna. Elkarren artean egikaritzen diren errealitateak:

-Kultura eta sistema sinbolikoa: Hitz egitea: Soziala da, esaterako, hitz egitea: zentzuz hitz egin nahi duenak beste batekin egin behar du, beste batzuek ulertzen duten hizkuntzan eta moduan... Bakarka hitz egiten dugunean ere, besteak hor daude, bai gure gogoan irudikaturik daudelako, bai erabiltzen dugun hizkuntza ez duelako batek bakarka sortu.

-Jende bizitza antolatzeke tresna eta sistemak eta jende harremanetan sorturiko forma guztiak: egiturak, elkarteak, klaseak..

Laburbilduz, soziala elkarrena da. Soziala bakarrik egin ezin dena da, hau da, beharrezkoa da beste batzuen elkarrekintza eremu soziala eratzeko orduan. Gizatalde batek nolako jokabidea duen, zer nolako erantzuna duen, eta eremu sozialean sortzen diren hainbat estruktura, kodigo eta sinboloak da soziala deitzen dugun hori. Talde bat edo gizarte bat aztertzeko erabiltzen dugu.

Soziologia: soziala aztertzen duen zientzia, hau da, elkarte fenomenoak aztertzen dituen zientzia da. Soziala aztertzeko orduan bi ikuspegi ezberdin daude:

-Egitate soziala: errealitate soziala eginda eta egituratuta daude. Soziala berezko ezaugarrietatik azaldu behar da, errealitate sozialek berez dituzten ezaugarrietatik azaldu. Ezaugarri horiek, hainbatetan elkarren harremanetan era erregular batean sortzen dira: LEGE SOZIALA.

-Ekintza soziala: errealitate sozialak nola sortzen diren aztertu. Errealitate soziala elkarren artean sortu, egin eta egikaritzen den edozein ekintza. Eta egintza hauek aurrera eramateko gure motibazioa aztertu.

### 2. PSIKIKOA: Zer da? Zertarako erabiltzen dugu?

SOZIALA talde bezala ulertzen badugu, PSIKIKOA norbanako bezala ulertu behar dugu. Psikikoa norbanakoari dagokio, joera indibidualak direla esaten dugu, eta norbanakoaren portaera, pentsamendu eta jokaera propioei deritzote. Portaerak azalduko diguten eragileak, organismoan agerikoak ez diren ezaugarriak dira, hauei, ezaugarri psikikoak (psikea) deritze. Portaera hauek ez dira bakarrik norbanakoak dituen ezaugarrietatik jaiotzen, inguruarekin duen harremanak eta elkarreaginietatik sortzen dira. Ingurumen jakin batzuei eta estimulu ezberdinei, era ezberdinean erantzungo dio organismo bakoitzak. Horrenbestez, indibiduoak aztertzeko eta haren jokaerak ulertzeko erabiltzen dugu.

Laburbilduz, organismo bakoitzak, gizaki bakoitza kasu honetan, bere inguruan harremantzeko dituen gaitasun ez fisiologikoak da psikikoa deritzogun hori. Harremantze honetan, erantzun ezberdinak hautemango ditugu eta erantzun hauek ohiko eta errepikakorrak bihurtu daitezke:(disposizio psikikoak)

- emozioak → sentimenduak
- pentsamenduak
- pertzepzioak

**Psikologia:** portaerak aztertzen dituen zientzia. Banakako organismo bizidunen portaeraren zientzia. Organismo batek berezko ezaugarrien arabera portaera bat edo beste.

### **3. GIZARTE PSIKOLOGIA: ikuspuntua.**

AEB: Psikologiaren parte bezala ('Psikologista'): organismo batek duen portaerari nola eragiten dioten espezie bereko organismoek. Pertsona ikergaia. Bigarren mailako ikergaia ingurunea, aldagaia. Norberaren portaera banaka, modu batekoa da. 'Psikologia indibiduala' (banaka) → beste askoren artean bestelakoa da. 'Psikologia soziala' (jende artean).

'REDUKZIONISMO' honek gizakia=pertsona hutsa. Ez ditu kontuan hartzen benetako gizakiak, gizarte ingurune batean bizi eta sortzen direnak. Gizarte gertaeren zergatia ez da gizartearen baitan egongo baizik eta gizabanakoaren muintetik.

Gizarte psikologia ( SOZIOLOGIA ): ELKARREKINTZA. Soziala eta psikikoa organismoen elkarrekintzaren emaitza. Errealitate psikosoziala: nola azaleratzen eta egikaritzen diren aztertu. Pertsonak elkarrekintzan bizi: harremanetan sortu eta izan, aktorea eta eragileak gara sortzen ditugulako eta haiek egiten gaituzte, gure izatea egituratzen dutelako.

Horrenbestez, Gizarte Psikologiak egitura sozialetan aktoreen ekintzak aztertu nahi ditu, eta aktoreen ekintzetan egitura sozialen indarra eta eragina.

Egituratua (estrukturatua) eta egituratzailea (estrukturantea) eta banakoa eta kolektiboa batera integratzen dituen ikuspuntua.

## **2-AZALDU PERTZEPZIOA ETA HAUTEMATE PROZESUA**

Hautemate prozesua inguruaren eraginak jasotzeko modua da eta horretarako organo bereziak ditugu, inguruaren eraginak jasotzen ditugu, honen aldaketak eragiten digute eta hauetara moldatzen gara: SENTIKORTASUNA. Hain zuzen ere, jasotzeko ahalmen hori da, hautematea eta pertzepzioa.

Pertzepzio organoek ematen digute inguruaren berri. Hala ere, gizaki bakoitzak bere erara jasotzen ditu pertzepzio hauek, eta berak eraikiko duen mundu hori bere esperientzia besterik ez da. Mundu eta esperientzia multzo hauek komunean jarri behar dira.

Hautemate prozesuan hiru urrats bete behar dira: GESTALT (irudi nagusia/antolamendu nagusia) ikerketa ildoak.

- 1- Hautatu: inguruko estimulazioa jaso
- 2- Antolatu: markoak eta antolakuntza-egiturak ezarri
- 3- Interpretatu: zentzuz jantzi eta zentzua akordatu

Hainbat ideia:

-Hautematea prozesu AKTIBOA da eta beti testuinguru jakin batean gertatzen da. Estimuluak multzokaturik agertzen zaizkigu hainbat irudi edo formaren arabera, hau da, zuzenean hautematen duguna "forma osoa" da.

-Jendarteko hautematean ere printzipio horiek ezarri behar dira: hainbat marko ditugu. Horiek bideratzen dute gure pertzepzioa, eta beti testuinguru eta egoera zehatzetan.

-Horietako gehienak soziokulturalak dira. Eta horiei esker bizi gara mundu komunetan, baina etengabe landu eta egokitu behar ditugu eta hori egin ahala norberaren pertzepzioa ere egokitu eta doitu behar dugu.

<b>Hautemate ahalmen eta mugak</b>	Mugak (edo atalaseak)	emaitzak
organikoak	<i>Organoen hautemate-gaitasunen goi-eta behe-mugak</i>	<i>Hautemandako estimuluak</i>
soziokulturalak	<i>Marko kontzeptual eta soziokulturalak</i>	<i>Akordioak: esanahi eta zentzu komunak</i>
norberarenak	<i>Trebakuntza eta hezkuntza</i>	<i>Norberaren trebetasunak</i>

## **GIZARTE KOGNIZIOA**

Hautematea pertsonen artean ematen den harremanetan ematen den fenomeno da. Hautematea ez da soilik kognizioaren prozesua, hautematea badu izaera "motibazionala", emozionala eta eratzaila: hau da, hautemate prozesuak hainbat gauza egiteko edo ez egiteko kausa izan daiteke eta ez da "jasotze hutsa", hautematean ez dugu kanpotik datorrena besterik gabe hartzen, alderantziz, gure inguruko errealitatea eraiki eta eratzen dugu prozesu honen bitartez.

- Pertsona bat ezagutu baino lehenago berarenganako pertzepzio bat dugu. Era honetara pertsona horrenganako daukagun iritzia osatzen dugu eta sortuz goaz. Prozesu honi, hautemate prozesua deituko diogu. Aipatu behar dugu, prozesu hau ez dela maila mikro batean gauzatzen baizik eta maila makro sozial batean. Estimuluen pertzepzioa: hautatu eta kodetu, bildu eta oroitu

-Inpresioen erakuntza: gainontzeko pertsoneri buruz

-Inferentziak: inpresio horietatik pertsonen geroko jokaerari buruzko ondorioak edo inferentziak egiten dira, ez dakiguna "dakigunaz" osatzen (hau da, informazioa ondo ulertzeko eskura ditugun informazioak, ezagutzak, esperientziak eta abar erabiltzen ditugu).

Gizarte kognizioa ez da gertakari psikologiko hutsa, oraindik ez da topatu eredu unibertsalik, giza kognizioari legokiokeen eredurik. Kontuan hartu beharreko eragile historiko eta kulturalak daude tartean, horregatik, eredu partzial hauek plazaratzen direnean kultura guztietan duten balioa aztertu behar da. Hitz batez: kognizioaren egiturak beren jatorri soziokulturalean kokatu behar dira.

Horrez gain, kognizio hotzari, eredu logiko hutsari, kognizio orok dituen alderdi emozionalak eta motibazionalak gehitu behar zaizkio giza elkarrekintza hobeki ulertzearen.

## **GIZARTE HAUTEMATEA**

Gizarte hautematea “pertsonak ezagutzeko eta pentsatzeko (hau da, modu aktibo eta eraikitzaile batez) prozesua da”. Pertsonak ez ditugu zuzenean eta euren osotasunean ezagutzen, aldiz, euren ezaugarriak, gaitasunak eta egoerak dira gure ezagutzaren gaiak.

Elkarrekintzan ez dugu “pertsona hutsik” hautematen: taldekideak, giza multzoen jarduerak, erakundeak, araututako jokaerak eta jarduerak, rolak, arauak... hauek dira hautematearen gaiak.

Elkarrekintzan ez dugu “pertsona hutsik” hautematen: taldekideak, giza multzoen jarduerak, erakundeak, araututako jokaerak eta jarduerak, rolak, arauak... hauek dira hautematearen gaiak.

Gizarte Hautemateari buruzko ikerkuntzak argitu behar dizkigu hautematearen aldaera hauek:

-Pertsonak eragile kausalak omen dira, objektuak ez.

-Prozesu aktiboa: Estimuluak aukeratu.

-Hautatzailea: badira hautemateko iragazkiak

-Oharmena edo Arreta: Gehien interesatzen zaigun horri jartzen diogu arreta.

-Inferentziak: Ezaugarri fisiko batzuetatik fisikoak ez diren beste batzuk ondorioztatzen ditugu, esaterako, negar egitetik tristezia. Bada konbentzio esanguratsu andana luzea, kasu hauetan estimuluak adierazle jarduten du, adierazia guk inferitu dugun ondorioa dela.

-Egituratzzailea: hautemandakoa egituratu eta kategorizatu egiten dugu.

-Egonkorra: besteen eta norberaren jokaeran eginbide egonkorra edo iraunkorrek antzemateko joera dugu

LABURBILDUZ:

**Gizarte Kognizioa:** pertsonak ezagutzea eta jendarteko ezagutza.

-Besteen emozioak ezagutzea eta era egokian erantzutea.

- Inpresioak edo iritziak egitea.

Kasu egozpenak (jokaeraren kasua antzematea).

**Gizarte Hautematea:** besteak ezagutzeko lehenbizi hauteman behar ditugu.

-Edozein elkarrekintza burutzeko egoki hauteman bestea eta norbera egoki aurkeztu.  
Besteen jokaeraren motibazioa eta asmoak antzematea.

Kogtibismoaren ustez, errealitateaz dugun ezagutza gure gogamenean metatzen da (ordenagailuaren metafora gogoratu), metatze hori ez nahas-mahasean egiten, egituratze edo antolatze bideak omen daude: gidoiak, eskemak, prototipoak, jarrerak, marko edo ereduak, gaiak... Direnak direla ere, bi betekizun dituztela beti: sinplifikatu eta osatu.

Eskema soziokognitiboa: (KATEGORIZATZEKO MODUAK)

Jendeak bere gizartea pentsamendua eraginkorragoa egiteko erabiltzen dituen hiru gogamen eredu:

1) Eskemak: jendea, objektuak eta jarduera arruntak antolatzeko buru mapak dira, mapa kognitiboak.

2) Prototipoak: gizarte kategoria bat ordezkatzeko irudikatzen dugun kategoria kidea.

3) Gidoiak: egoera jakin batean jarduteko egin beharrean eskema, ekintzen hurrenkera da.

**3. 3. GAI OSOA ikasi → Selfa, gizarte elkarrekintza eta pertsonaren eragintza**

**4. ZERTARAKO ERABILTZEN DA JARRERA KONTZEPTUA GIZARTE ZIENTZIETAN?  
JARRERA KONTZEPTUA ETA DISONANTZIA KOGNITIBOAREN AZALPENA:**

**- Jarrera, zer da:**

Jarrerak ustezko balioespen-bideak dira. Subjektu batek objektu baten (hautemandako estimulu baten) aurrean dituen erantzun ezagun eta errepikatuak azaltzeko erabiltzen ditugu. Jarrera bati hiru “erantzun bide” dagozkio: hiru behatutako jokaera mota dagozkio jarrerari estimulu bat hautematean.

1. Hautemate edo ezagutzea. Alderdi kognitiboa: objektu edo egoera bati buruzko

sinesmenak, iritziak eta informazioak.

2. Afektibo eta ebaluatiboa. Objektu edo egoerarekiko emozioak, sentimenduak, eta balorazioak.

3. Alderdi konatiboa. Objektu aurrean zelan jokatu dugun. Eta jardunbide horri ekiteko dugun joera edo asmoa.

Teorian onartu egiten dira hiru alderdi edo osagai hauek baina ikerkuntzetan bitara edo bakar batera mugatzen dira jarrera hauek.

Jarrerak gizarte elkarrekintzetan eta harremanetan gizabanakoek hartu, bereganatu eta bere egiten dituzten joerak edo jokatzeko bideak izango lirateke. Berauen bidez gizabanakoen nortasun eta subjektibotasunik har dezakete.

Kasu honetan ere, portaera egonkor eta iraunkorraren kausa azaldu nahi dutenak dira. Holaxe elkarrekintza atondu egiten dute, elkarrekintza antolatze bide iraunkorrak dira. Jarrerak, ebaluazioak direnez, balentzia (aldeko eta kontrako norabidea) eta indarra dute (balentzia horretan noraino heltzen den).

#### **- Zertarako erabiltzen da jarrera kontzeptua gizarte zientzietan:**

Ustez jarrerek subjektuen portaera zein izango den aurrez jakiteko balio dutelako, hots, balio prediktiboa omen dutelako. Aldez aurretik ezagutzen dugun portaera aldatu edo eragotzi ahal dugulakoan ikerlan gehienek jarrera eta portaeraren arteko lotura zein den zehazteari ekin diote.

Gizarte zientzietan jarrerak eta antzeko kontzeptuek deskribatu eta azaldu dituzte gizarte bizitzan gertatzen diren erregularutasunak. Gizarte Zientzietan hainbat kontzeptu sortu dira gizakien portaera ulertzeko eta jarrera hauetako bat da.

Zientzietan, eguneroko bizitzan ez bezala, kontzeptuok zehaztu eta operazionalizatu egin behar dira, zuzenean behagarri eta zehatzak diren ekintza eta gertaera batzuekin berdindu behar dira. Esaterako, jarrera operazionalizatu beharko genuke bai subjektuek esandakoetan bai egindakoetan.

Dena den, kontzeptuak gizarte bizitzaren parte direla aldetik zientzietatik iritzi publikora igaro ahal dira edo alderantziz. Hauxe gertatu zaio jarrera kontzeptuari: hasiera batean azalpen arruntetan erabiltzen bazen ere, zientzian jaso zuten.

#### **- Disonantzia kognitiboa:**

Kognizio bat pertsona batek bere inguruaz eta bere buruaz dakiena edo ezagutzen duena da: bere buruaz eta munduaz batek dituen pertzepzioak, sineskerak, ideiak, burutazioak etab. Osagai hauen artean (jarrera bat osatzen omen dituztenak: kognizio, emozio, portaera edo portaerarako joera...) dauden harremanak izan daitezke:

- Garrantzi gabekoak (harreman eskasa edo batere ez)

- Kontsonanteak (bat datoz),
- Disonanteak (ez datoz bat).

Azken kasuan, osagai batzuk bat ez datozenean gizabanakoak tentsio psikologikoa jasaten du, tentsio hau eragile edo motibazionala da: subjektuak oreka edo kontsonantzia berreskuratu nahi izango du. Gure osagai kognitiboek zentzu berekoak izan behar dute. Ez direnean, gure osagaien artean disonantzia sortzen da. Garrantzitsuak diren gaitan kontsonantzia mantentzeko presio soziala handiagoa da.

Disonantzia aurrean pertsona bat jartzean, kontsonantzia bilatzera joko du. Beraz, pertsona bat manipulatu dezakegu objektu batekiko dituen asmo, informazio edo sentimenduak aldatuz, bere jarrera eta ondoren bere portaera objektu horrekiko alda dezan. Esate baterako, erretzearen adibidea. Elkarren aurka doazen kognizioek oreka eza eta erosotasun eza sortarazten diote subjektuari. Antza, gizakiok guztiz koherenteak izaten saiatzen gara. Hainbat bide daudela disonantzia murrizteko:

- Disonantzian dauden gaiak aldatzea, osagarriak ez diren gaiak ezabatzea: tabakoa horren kaltegarria den jakin duen erretzailea tabakoa uzten saiatuko omen da.
- Disonantzian dauden gaiak aldatzeko errazena aukeratzea: erretzeari uztea oso zaila da, beraz, bigarren gaia moldatzen saiatuko da erretzailea, hau da, diskurtso mailan arituko da eta tabakoari buruzko informazioa moldatuko du.
- Disonantzia eragiten dion portaeran tematu: erretzeari utz beharrean, erretzearen alde arituko da eta erretzaileen eskubideak edo irudiaren alde.

Murriztea (eta jarrera-aldaketa): Jarreraren kontrako portaera bat denean aurreko sinesmenak aldatuko dira eta portaerarekin bat datozen sinesmenei eutsiko die subjektuak (rola bereganatu, bere burua zuritu...).

Gure sinesmenak eta asmoak ukitzen dituzten informazio berriak geureganatzen ditugunean bi modutara erantzun ahal dugu: portaerak aldatu ahal ditugu (erretzeari utzi) edo disonantzia murriztuko duten kontra-argudioak landuko dira (erretzea ez da horren txarra, gutxi erretzen dut...)

## **5- MILGRAMEN ESPERIMENTUA: BOTEREA, AUTORITATEA ETA DESOBEDIENTZIA (5.GAIA)**

(Izenburuan aipatzen diren terminoak bosgarren gaitik ikasi eta jarraian dagoen teoriarekin lotu).

Milgran-ek (1974, 1984) eman zigun eremu honetako esperimenterik ospetsuena eta eztabaidatuena. Esperimentu horrek erakutsi zigun pertsonok zer nolako esanekotasuna diogun aginteari. Esperimentu honen helburua prestigio handiko iturri batek zer nolako eragina eta boterea zuen neurtzea zen. Horretarako, esperimenterik subjektuak “zientifikoek” agindutara jartzen ziren sasi-esperimentu batean parte hartuko zutelakoan, esperimenterik horretan hainbat deskarga elektriko eman behar zieten beste pertsona batzuei. Jakina, deskargak ez ziren benetakoak baina esperimenterik subjektuek benetakoak zirelakoan jardun zuten. Kasu gehienetan men egin zioten aginteari eta oinaze oihuak entzunda ere deskargak emateko esaten zietenean beraiek horixe egiten zuten.

Milgran-en ustez, aginteari obeditzea gizarte arau bat da. Gaurko munduan, eguneroko bizitzak gero eta gehiago eskatzen zion subjektuari, gero eta konplexuagoa da egoki jardutea. Horregatik, moldatze lana errazteko, agintearen “jarduteko definizioak” onartzen ditugu, batez ere agintea legitimoa dela hautematen dugunean. Leyens-ek esan duen bezala esanekotasuna eta konformismoa gizarte arauak dira.

Milgran-en lanaren pizgarria nazien Holokaustoa izan zen. Nola azaldu hainbat eta hainbat jenderen laguntza behar zuen sarraski hori? Nola lortu zuten naziek horrenbesteko “menpekotasuna”? Milgran-ek Alemania nazian gertatu omen zena errepikatu nahi izan zuen laborategi batean: aginte legitimo eta aldi berean anker baten menpeko esanekotasuna. Hartara, ustez oroimenari buruz izango zen esperimendu batean parte hartzeko hainbat subjektu bildu zituen, diru truke eta egunkariko iragarki baten bitartez. Laborategian subjektu bakoitzak esperimenduan parte hartzeko beste bolondres batekin egiten zuen topo, benetan Milgran-en laguntzailea zena. Esperimendu gelara igaro eta laguntzailea eserleku batean lotzen zuen Milgran-ek, ondoren elektrodo batzuk jartzen zizkion eskumuturretan. Besteak, esperimenduko subjektuak, deskarga elektrikoak ezartzeko makina baten aurrean eseri behar zen: ariketa bat egongo zutela esaten zitzaion, hitzak elkartzeko ariketa, eta oker eginez gero deskarga bat ezarri behar zion.

Deskargak gero eta handiagoak izango ziren. Hori bai, hasi baino lehenago ohartarazten zitzaion deskargak ez zirela hilkorrak, ezta larriak ere. Hala ere, makinaren azken botoietan “arriskua, oso deskarga gogorrak” zegoen idatzita. Esperimendu hasi eta laguntzaileak behin eta berriro kale egiten zuen, deskargak aurrera joan eta oihuka eta garrasika hasten zen. Dena antzezpen hutsa, bistan da. Esperimenduko subjektuek bere dudak eta zalantzak agertzen zituzten eta Milgran-ek aurrera jarraitzeko agintzen zien baina inolako mehatxurik gabe. Ehuneko 65-ek deskarga gogorrenera heldu eta jo zuten.

Esperimendua behin baino gehiagotan errepikatu egin da. Espainiar Estatuan ere egin dira saioak eta ehuneko 90-era heldu (Miranda eta beste 1981). Milgran-ek esperimendu honek agerian utzi du aginte “legitimo” baten menpeko esanekotasuna ez dela subjektu gaixoen patologia bat, ezta egoera patogeno baten ondorioa, aginte eta botere harremanen izaeran dagoen berezko ezaugarria baizik. Jakina, ondorioak oso bestelakoak izango dira egoeraren arabera: eguneroko bizitzan aginteari men egiteko joera gizarte-lokarri eta araua izan daiteke, gerra garaian sarraski baten pizgarria.

## **6- GIZARTE ERAGINAREN PROZESUAK: KONFORMITATEA ETA BERRIKUNTZA (5. GAIA)**

Gizarte eragin prozesuak, pertsona baten edo batzuen portaera aldatzen duten elkarrekintza prozesu eta portaerak dira. Gogora ezazu soziala izatez elkarri eragitetik eta elkarri eraginez sortzen diren gertakariak eta egitateak direla, beraz, eragin soziala da sozial deritzogun edozeren oinarria eta muina. Hiru motatako eragin prozesuak daude: gehiengo kualitatiboan eragina, gehiengo kuantitatiboan eragina eta gutxiengo eragina.



### 3.1. Normalizazioa: eragina eta araugintza:

Gizarte Psikologiaren lehendabiziko lanen gaia gizabanakoarengan masak zuen eragina izan zen. XIX. mendearen bukaeran gizarte tradizionalak desagiten ari ziren eta industrializatutako gizarte berria eraikitzen. Soziologia antzaldatze hau azaltzen saiatu zen: gizarte tradizioaletatik gizarte modernoetara igarotzean gertatuak eta gertatu beharrekoak. Azalpen gisa hainbat kontzeptu-bikote plazaratu ziren: Tönnies-en *gemeinschaft* (elkargoa) eta *gesellschaft* (elkartea edo lagunartea, kide-artea), Durkheim-en elkartasun mekanikoko gizartea eta elkartasun organikoko gizartea. Gizarte Psikologiaren abiapuntua desagituraketa anomikoa eta normatiboa eta gizarte eragile berriekiko beldurra eta mesfidantza izan ziren. Alde batetik, barne egiturarik eta kohesiorik ez zuen gizarte molde berri eta handia (jakina egituratzeko arau eta lokarri berriak asmatuko ziren, besteak beste, nazionalismoa); eta bestetik gizarte-eragile berriek: alderdi politikoez, sindikatuek, baina batez ere, “masek” sortarazten zituzten gatazkak eta berrikuntzak.

Garai horretako Gizarte Psikologiak masa ez-subjektutzat hartzen zuen: irrazionala, anomikoa edo arau gabekoa. Eta kutsapen edo sugestio prozesuen bidez sortzen zirela uste zuten.

Binet-ek eta Henri-k (1894) sugestionagarritasuna ikertu zuten: pertsona batek bere portaera eta borondatea beste pertsona baten eraginagatik aldatzeko joera. 20 urteen hamarkadan Moore-k (1921) esperimendu batzuen bidez frogatu zuen gehiengo kuantitatiboak eta gutxiengo kualitatiboak (adituek, agintariek) eragiten ziotela jendeari iritziak eratzean. 1936an Sherif-ek ezagutzera eman zuen bere izena duen eragin ondorioa, “Sherif efektua.” egoera anbiguoetan eta egitura gabeetan, arauak eta jarrerak eratzeko eta gauzatzeko orduan taldeak duen eragina.

Efektu auto-zinetikoaren ikerketak: “Gela ilun batean, ormaren kontra argi puntu bat igorriko bagenu, bertan dagoen subjektuak puntu hori mugitzen hautemango luke.” Bistan da, efektu hori erreferentziarik ezak sortzen duela, baina Sherif-ek taldeka egin zuen esperimendua: gela ilun batean argi puntu bat proiektatu eta puntu hori mugitzen zen ala ez, non zegoen eta abar galdetuz egiaztatu ahal izan zuen ezarian taldekideen iritziak bateratzen zirela. Apurka-apurka talde araua sortzen zela. Era berean, esperimendutzaileak iritzia emanez gero, taldeak bat egiten zuen iritzi horrekin.

Sherif-ek zera ondorioztatu zuen esperimendu hauetatik: gizarte arauak (estereotipoak, modak, konbentzioak, balioak, ohiturak...) elkarreaginez eta elkarrekintzaz eraten diren erreferentzi molde komunak emaitzak direla. Eta beraren ustez behar den gutxieneko elkarreaginez, elkarren ondoan egotea zen. Arauen gizarte erakuntza, gizarte eragin prozesu bezala. Sherif-ek, beraz, pentsatu izan zuen elkarrekin egotean erreferentzi molde komunak eraten direla, eta molde horietatik arauak sortu. Hala ere, hau baino interesgarria da gizabanakoek zelan barneratzen dituzten arau horiek.

Newcomb, Turner & Converse-ren lan batek zehaztu zuen prozesu hori (1970):

Taldeak uniformitatea sortzen du, gehienetan araua adostasunaren emaitza da. Arauak barneratzen direnez, berez gailentzen dira. Horrez gain, geure arau-moldeak dituztenekin biltzeko joera dugu, honela talde elkartasuna eta kohesioa indartzen dira. Aipatutako arau-molde horiei esker taldearen boterea handiagoa da, taldekideak arauekin

batera onartzen duelako botere hori, nahita eta libreki (botera baino areago, autoritatea da).

Zergatik jarraitzen diegu arauari?

### 3.2. Konformismoa:

Gehiengo kuantitatiboaren eragina; “gehiengoarekin bat egiten” XX mende erditik, Asch-ek gizarte eraginaren prozesurik bitxia ikertzeari ekin zion: konformismoa edota “gutxiengo edo norbanako batek gehiengoak esaten duena edo erabakitzen duena onartzea.”

Ikerlari honek behin baino gehiagotan egin zuen esperimendu batek itzal handia lortu zuen konformismoaren ikerkuntzan. Esperimenduaren muina hainbat lerro hautematea eta patroia batekin konparatzea zen. Esperimenduko partaide guztiak, bat izan ezik, laguntzaileak ziren eta jakinaren gainean zeuden. Bere lana oso sinplea zen: argi eta garbi oker zeuden iritziak adieraztea lerroak eta patroia konparatzean. Harrigarria da emaitza hiru esperimendutatik batean subjektu “ezjakinak” gehiengoarekin bat zetorren, gehiengoak esandakoa oker zela argi baino argiago egon arren.

Esperimendu hauetan, Sherif-enetan ez bezala, bazeuden alde aurretik egituratutako arau-moldeak (bazen marko objektiboa) egoera ez zen batere anbigua eta erreferentzia argi zeuden.

#### Zelan azaldu “konformismo” eta Konformatze prozesua?

1. Mooreren errefortzuaren teoria: ikuspegi konduktista: konformismoa gizartearen arabera egokitzea baino ez da eta egokitze hau berez indargarria edo errefortzua da (gehienetan indargarri positiboa). Gizarte aruari uko egitea, berriz, errefortzu negatiboa da.

2. Aschen eredu gestaltikoa: subjektuek euren pertzepzioak gehiengoaren arabera egituratzen dituzte. Gestalt ereduaren arabera, “forma psikologikoen” osotasuna antzaldaten da alderdi bat aldatzen denean, parte bat aldatuta osotasuna ere kognitiboki berrantolatu behar da. Eredu honek egokia dirudi egoera anbiguoetan eta egituratu gabeetan gertatzen diren konformatze prozesuak azaltzeko.

3. Deutsch & Gerard-en menpekotasun edo eraginpekotasun informatiboa (1955): “eragina” eta “menpekotasuna” sinonimoak dira; konformismoaren mekanismorik nagusia menpekotasuna da: gizabanakoa eta gutxiengoa gehiengoaren menpean daude bai gizarte onarpena lortzeko (eragin edo menpekotasun normatiboa), bai ingurumenari egokitzeko behar den informazioa lortzeko ere (eragin informatiboa).

4. Kelmanen sumisio-onarpena (1984): hiru konformitate mailak omen daude: a/ gehiengoaren boterea onartu; b/ “konformatzen” ari den subjektuak burua bat egiten du taldearekin edo pertsonarekin (identifikazio edo erreferentzia) c/ azkenik, gehiengoaren arau sistema bere egiten du subjektuak.

### 3.3. Konformismoa: gehiengo kualitatiboaren eragina:

Eragiten diguna “gehiengoa” denean eragin kuantitatiboaz hitz egiten da, eragin ahalmena kopurutik etorriko balitzaio bezala, gizakiak inguruan nagusi diren indarrekin bat egiten omen du. Baina argi dago, nagusitasuna ez dela kopuru hutsetik etortzen. Nagusitasuna ere pertzepzio-kognizio prozesuen emaitza da. Kontua da nola hautematen dugun eragilearen indarra. Iritzi ildo honetatik abiatu zen

eragin kualitatiboaren ikerketa, zehazkiago Milgran-en “aginte esanekotasunari buruzkoa” (Lotu aurretik Milgranen esperimentuaren irakaspenekin.).

## **7- GUTXIENGOEN ERAGINA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA (5. GAIA)**

Gutxiengoaren eragina eta gizarte berrikuntza. Eraginari buruzko ikuspegi klasikoak gizartearen konbergentzia edo bat egitea, konformismoa eta esanekotasuna jorratu ditu. Ikuspegi berriak, “genetikoak”, gizarte berrikuntza eta dibergentzia ditu aztergai.

Ikuspegi klasikoan gutxiengoak obeditzea ala baztertuak izatea erabaki behar duten hartzaile pasiboak diren bitartean ikuspegi genetikoan gizarte eragile txikiek ere eragile aktiboak dira, ekintzaileak eta eraginkorrak: gutxiengo trinko eta malguak aldaketak eragin ahal ditu.

Ikuspegi klasikoa ikuspegi funtzionalista da: gehiengoaren eraginak gizarte sisteman agertzen diren anomaliak berdintzen omen ditu eta honela sistemak iraun dezake. Ikuspegi genetikoak normalizat jotzen ditu aldaketak eta berrikuntzak, “anomaliak” ez dira zuzendu edo berdindu behar diren talde edo pertsona patologien emaitzak, gizarte sistema osoaren berezko mugimenduak baizik.

Ikuspegi klasikoaren barruan egonda ere, Hollander-en “kreditu idiosinkrasikoaren teoria” (1978) ikuspegi genetikoaren aitzindaria izan zen. Teoria honek dioenez, talde edo pertsona baten aginteak gizartearen zenbat eta onarpen eta legitimitate handiago izan orduan eta ahalmen handiago izango du talde edo pertsona horrek berrikuntzak sortarazteko. Baina honela izan dadin, eragileak talde arauak onartu behar ditu lehenago, antza denez, taldeak haren agintea onartu behar du geroago beraren eragina onar dezan: kide “konformista” izan denak (hots, talde arauak onartuz taldearekin “konformatu” denak) berrikuntzak ekar ditzake.

Eredu honek ez du azaltzen talde baztertu eta gutxietsiek eragin dituzten aldaketak, izan ere, kasu horietan gutxiengoek ez dute inolako “kreditu idiosinkrasiakorik” izan eta, hala ere, aldaketak sortu dituzte

MADDIK JARRITAKO BESTE BI GALDERA (nahi ditunak bere kabuz garau):

**-Zuen herriko udalak zerbait egin nahi du herrian praktika berri bat sortzeko (adb: gazteek kirol gehiago egin dezaten), proiektu bat aurkeztu praktika berri hori sortzeko (disonantzia kognitiboa, auto irudia, talde identitatea, talde presioa...) Imagina ezazue herriko udalak zerbait egin nahi duela praktika bat sortzeko herrian. Adibidez; jaietan herritarrek alkohol gutxiago edan dezaten. Nola egingo zenukete praktika hau aurrera eramateko?**

Disonantzia portaera eraldaketarako. Pertsonak bere buruarekiko duen ideia, talde identitatea, talde presioa. (erretzailearen adibidea).

**-Klasean ikusi dugunaren arabera hautemate prozesuan zer da lehena: interpretazioa, informazioa jasotzea edo praktika bera?**

Erantzuna bigarren gaian (2) Tranpa da, ez dagoelako lehenik.

